


## Etorkizunari begira, adi

Aurrera-Saias taldeko atzelariak DV txapelketa irabazi berri du senior mailan ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2006-01-03 ▶ IV. urtea ▶ 778. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Zeberio II.a, bigarren txapela janzteko bidean

**ELDUAIN** ▶ Eguberrietako buruz burukoa irabazita, binakako Faustino Txapelketa lortzear da; «urte hasiera ezin hobea litzateke», dio ▶ 6

### TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

**Urte Zaharrear ere kalera, presoak gogoan**

Sakabanaketaren amaiera eta presoen estatus politikoa, eskaerak ▶ 7

### TOLOSA ▶

**Herria txukun mantentzeko arauak eta gomendioak**

Etkez etxe ari dira informazioa banatzen; garbiketa zerbitzuak irudi berria du ▶ 3

### ANOETA ▶

**Udalak 2006rako ordenantza fiskalak onartu ditu**

«Proiektuak gauzatzeko diru sarrera garrantzitsuak dira tasak eta zergak» ▶ 4



## Lasterketa jendetsuak urteari agur esateko

**TOLOSALDEA** ▶ Eguraldi txarrari aurre eginez, makina bat lagunek hartu zuten parte San Silbestre eguneko eskualdeko ohiko krosetan. Joseba Saizarrek eta Idoia Labaienek irabazi zuten Urepelek antolatutako Berastegiko krosa, nagusien mailan. Villabonakoan, Urkamendi eta Zumbeltz elkarteek antolatutakoan (beheko argazkian), Manu Hurzado eta Izaskun Zubeldia izan ziren azkarrenak, maila berean. Eta Tolosan, Samaniegok antolatuta, Ramontxo Otegi eta Patricia Urretabizkaia izan ziren irabazle nagusietan (goiko irudian, helduen mailako nesken podiuma). HITZA ▶ 2



**BRIDGE 2005, S.L INGELESA**

- Haur, gazte, helduentzat.
- Taldeetan edo bakarka.
- Azterketa prestaketa; Cambridge University, H.E.O....
- Interprete eta itzulpen zerbitzuak

943 652 372 - 680 222 526  
bridgetolosa@yahoo.es

Pablo Gorosabel. 2-1A\* 20400 Tolosa - Gipuzkoa

SAN SILBESTRE KROSAK ▶

# Euriak bustitako lasterketa jendetsuak Tolosan, Villabona-Zizurkilen eta Berastegin

Ramontxo Otegi eta Patricia Urretabizkaia, Manu Hurzado eta Izaskun Zubeldia eta Joseba Saizar eta Idoia Labaien izan ziren irabazle, nagusien mailan

NOELIA LATABURU

Urte zaharrari kirola eginez agur esateko aukera aprobe-txatu zuten gure eskualdean haur, gazte, zein heldu askok. Izan ere, usadioari jarraiki San Silbestre krosa egin zuten ostiralean Villabona eta Zizurkil artean. Berastegin eta Tolosan. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, eta hotza eta euria izan ziren protagonistak. Hala eta guztiz ere, lasterkariak ez ziren kikildu eta beldurrik gabe atera ziren kaleetara.

Berastegin Urepele elkartek antolatzen zuten krosa, eta 90 lagunek eman zuten izena. Gaztetxoek kilometro bat eta 200 metroko ibilbidea egin behar izan zuten eta helduentzat, berriz, 6 kilometroko luzera zuten bidea prestatu zuten. Helduetan Joseba Saizarrek irabazi zuen; nesketan Idoia Labaien; eta haurretan, azkenik, Jon Matxinea izan zen azkarrena.

Villabona eta Zizurkil arteko lasterketak XXII. edizioa zuten aurtengoan, Zumbeltz eta Urkamendi elkarrekin antolatuta. Guztira, 450 lagunek hartu zuten parte, maila askotan banatuta. Bizkorrena Manu Hurzado Caballero izan zen, gizonezko seniorren mailan lehiatu zena (39 urte artekoetan). Beasaingo korrikalari honek 22 minutu eta 2 segundo behar izan zituen 7 kilometrotako ibilbidea burutzeko.

Samaniego-Orixe ikastetxe-ko Kirol Eskolak antolatu zuten Tolosako lasterketa, beste laguntzaile batzuekin batera: To-

## SAILKAPENA ▶

### BERASTEGI

#### Helduak, gizonezkoak.

1. Joseba Saizar

2. Jon Zubillaga

3. Iban Agirrezabala

#### Helduak, emakumezkoak.

Izena

1. Idoia Labaien

Haurrak.

Izena

1. Jon Matxinea

VILLABONA-ZIZURKIL

#### Benjaminak, mutilak.

Izena

1. Eneko Alkorta

Benjaminak, neskak.

Izena

1. Izaro Garmendia

Alebinak, mutilak.

Izena

1. Andoni Beobide

Alebinak, neskak.

Izena

1. Liemi Kamio

Infantilak, mutilak

Izena

1. Unai Imaz

Infantilak, neskak.

Izena

1. Tamara Lozano

### Kadeteak, mutilak

Izena Denbora

1. Eneko Garin 11 m. 40 s.

### Kadeteak, neskak.

Izena Denbora

1. Maria Montero 14 m. 20 s.

### Beteranoak, gizonezkoak.

Izena Denbora

1. Pedro Mendez 23 m. 25 s.

### Seniorrak, emakumezkoak.

Izena Denbora

1. Koro Zubeltzu -

### Helduak, gizonezkoak.

Izena Denbora

1. Manu Hurzado 22 m. 02 s.

2. Patxi Urizar 22 m. 07 s.

3. Hasan 22 m. 37 s.

### Helduak, emakumezkoak.

Izena Denbora

1. Izaskun Zubeldia 28 m. 11s.

2. Arantxa Eizagirre 28 m. 25 s.

3. Ixiar Zugasti 8 m. 59 s.

### TOLOSA

#### Helduak, gizonezkoak.

Izena Denbora

1. Ramontxo Otegi 12 m. 47 s.

2. Manu Otermin 13 m. 55 s.

3. Iker Manso 14 m. 02 s.

#### Helduak, emakumezkoak.

Izena Denbora

1. Patricia Urretabizkaia 13 m. 52 s.

2. Ane Ezeizabarrena 14 m. 02 s.

3. Merbe Egiguren 14 m. 52 s.

### Benjaminak, neskak.

Izena Denbora

1. Jone Ezeiza 2 m. 45 s.

2. Maitane Olano 2 m. 52 s.

3. Amaia Elizegi 2 m. 53 s.

### Benjaminak, mutilak.

Izena Denbora

1. Odei Arrieta 2 m. 25 s.

2. Joanes Garikano 2 m. 26 s.

3. Inigo Garmendia 2 m. 34 s.

### Alebinak, neskak.

Izena Denbora

1. Maddi Garikano 6 m. 09 s.

2. Ane Davila 6 m. 10 s.

3. Mireia Igartua 6 m. 11 s.

### Alebinak, gizonezkoak.

Izena Denbora

1. Inigo Izeta 5 m. 06 s.

2. Alex Irurzun 5 m. 07 s.

3. Kepa Izagirre 5 m. 13 s.

### Infantilak, neskak.

Izena Ikastetxea

1. Sandra Lopez Uzturpe

2. Garazi Egiguren Laskorain

3. Ane Elizegi Hirukide

### Infantilak, mutilak.

Izena

1. Unai Arroyo

2. Jon Etxaide

3. Ander Ortiz

losa Hiri Komertziala. Igarondo elkartea, Tolosako Udala eta Tolosa CF, hain zuzen ere. Zortzigarren edizio honetan bildu zuten dirua Indiara bideratuko dute bi Gobernu Kanpoko Erakunderen bitartez: San Bartolome Misio Taldea eta Calcuta Ondoa; bilketa irteeran eta helmugan egin zuten. 16:00etan hasi zen lehen las-

terketa, txikienekin; ibilbide ezberdinak egin zituzten, adinararen arabera. Lasterketak iraun zuten artean giroa alaitzeko eta berotzeko musikariak aritu ziren Alde Zaharrea. Bukaeran, berriz, txokolatea banatu zuten parte-hartzaileen artean.

Lasterketen amaieran sariak banatu zituzten hiru herrietan, parte-hartzaileen artean, eta

ez nolanhikoak gainera. Umeberdintza eta gazteentzat garaikurrak, dominak eta kamisetak izan ziren; eta helduentzat, aldiz, garaikurrak, saskiak, kamisetak eta sudaderak, besteak beste. Tolosan, bestalde, Usabal kiroldegirako txartelak eta afariak zozketatu zituzten bakarka nahiz taldeka parte hartu zuten guztien artean.

KIROLA ▶

## Gaur, Shanti Torneoko lehen final-laurdenak

Goiz eta arratsaldean jokatuko dituzte Usabal kiroldegian, mutilen mailan

N. LATABURU

Lehen fasea igaro ondoren, XXIV. Shanti Torneoaren lehen final-laurdenak jokatuko dituzte gaur Usabal kiroldegian. A mailan lau norgehiagoka izango dituzte, mutilen taldeen artekoak; 10:00etan hasiko da lehenengo eta 12:15ean azkena. Hauek izango dira, hurrenez hurren, neurketak: Multas Perus taldearen aurka; Anti sorteo Txinpartaren aurka; Zakilporru Txapel Gorriak taldearen aurka eta Itzuli Chispazos taldearen aurka.

Arratsaldean, berriz, B mailako mutilen txanda izango da. Horrela, 15:30ean hasiko dira futbito partidak eta 17:45ean amaituko da azken neurketa. Beste zortzi talde ariko dira finalerdietarako lehen. Honakoak dira elkarren artean jokatuko duten talde sailkatuak: Berrobi eta Lurrikarrak; Sendi Ekintza eta San Juan; Tigre Txikiak eta Climaxvic A eta Usabal 05 eta Anoeta.

Final-laurden hauetatik finalerdia jokatuko dituzten lau taldeak aterako dira. Aipatutako XXIV. Shanti Torneoaren finalerdietako norgehiagokak bihar jokatuko dira bi maila hauetan: A mailako lau sailkatuenak 15:30ean eta 16:45ean eta B mailako sailkatuen artekoak 17:00etan eta 17:15ean, hain zuzen ere. Gainontzeko taldeak ere egunotan jokatuko dituzte euren final-laurdenak; finalak, berriz, urtarrilaren 8an egingo dituzte.

## hilberriak ▶



Jose Luis Aranburu Etxaide



Iguriako boluan ehundaka sorgin gauean, Iguriako boluan dantza dantzari kantetan.

Beti gure gogoan egongo haiz.

Hire familia.

ZARAUTZ, 2006ko urtarrilaren 3a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

GIZARTEA ▶

# Herria txukun mantentzeko

Irudi berria jarri diote garbiketara zerbitzuari: 'Tolosa txukun', orlegi kolorekoa

IRATXE ETXEBESTE

**T**olosa txukun, lagundu lortzen! Halaxe dio Udalak berriki abian jarri duen kanpainaren nondik norakoak azaltzen dituen eskuorriak. Herria garbi mantentzea guztion zeregina dela ohartarazten duen eskuorri orlegia ari dira banatzen etxez etxe udal arduradunak egunotan. Tolosa txukun. Orlegiak dira herriko kaleak garbitzeaz arduratzen diren garraioak ere. Irudi berria jarri diote, izan ere, ekimenari. Tolosa txukun mantentzeko ahalegin horri. Orain egun batzuk aurkeztu zuten irudi berria Plaza Zaharrean, eta Hrrzak eman zuen horren berri orduan. Oraingoan, baina, gehiago jakin nahi izan du herria garbi mantentzeko bidean egin beharrekoak.

«Tolosaldeko Mankomunitatearen eta Udalararen artean garbitzen ditugutako kaleak, eta baita era guztietako hondakinak jaso ere. Baina zuk, zeure aldetik, araudia betez egiten duzuna ezinbestekoa da de non artean inguru garbia eta atsegina lortzeko». Hitz horiek erabiliz hasten da Udalak egin dako eskuorria: «Gure helburua Tolosa txukun mantentzea da, lagundu lortzen!». Horrez gain, herria garbi mantentzeko bidean zer aholku jarraitu behar diren ekartzen du gogora.

Adibidez, eta hiri hondakin solidoen bilketaren eta tratamenduaren udal ordenantzarri jarraiki, zabor bilketako edukiontzien erabilierak nolakoak behar duen izan zehazten du:



Orain egun batzuk aurkeztu zuten irudi berria herrian. IRATXE ETXEBESTE

«Zaborrak plastikozko poltsetan atera behar dira, behar bezala itxita, eta edukiontzi barruan utzi. Orduetegiok errespetatu behar dira zaborrak utzerakoan: neguan, 19:00etatik aurrera, eta udan 20:00etatik aurrera». Arau hori, ordea, ez dute hainbat jardura berezietan aritzen direnek bete beharrik. Ostalaritzako, jatetxeetako, arrandegietako, azalera handiko establezimenduetako eta zabor ustelkorrek dituzten dendetako arduradunentzat neurri bereziak daude: «Udalak edukiontzi bereziak jarriko dizkie hala eskatzen duten dendariei, azalera ertain eta handiko establezimenduetakoei izan ezik».

Udal ordezkariak esandakoaren arabera, jardura berezi

horietan aritzen direnek edukiontziak gertuen dagoen bildulekuan utzi behar dituzte, eta «haien ardura da ontzia bide publikotik kentzea, garbi edukitzea eta zaintzea». Horrez gain, edukiontziek «establezimenduaren barruan egon behar harko dute; baita igandeetan eta jaiegunetan ere».

## Ardura, «guztiona»

Gaikako bilketari dagokionean, ekimenaren sustatzaileek adierazi dute edukiontzi bakoitzean jartzen duela zer bota behar den bertan —papera eta kartoia, urdinean; ontziak, horian, eta beira, berdean—, eta bestelakorik botatzea «debe-katua» dagoela. Dendetako kartoia, aldiz, ezarritako toki

berezietan edo edukiontzi urdinen ondoan utzi behar dira 20:00etatik 21:00etara; pilak udaletxera eraman daitezke; beirazko ontziak botatzeko ordutegia 09:00etatik 21:00etara da eta traste zaharrak asteazkenetan biltzen dira —altzariak, tresnak eta abar asteartean atera behar dira, 20:00etatik aurrera—, «baina alde zurririk egin behar da».

Beira, papera, ontziak, arropa... horrelako hondakinak noiz-nahi atera daitezke, «herriarrei inolako eragozpenik sortu gabe». Dendetako kartoia larunbat, igande eta jaiegunetan ateratzea debekatua dago, eta «ahal den leku guztien hartzen duela» utzi behar da. Erabilitako olio eta etxetako hondakin arriskutsuak, berriz, hileko azken larunbatean bilduko dira, Trianguloan, 09:00etatik 13:00etara. Sukaldeko olio, motorrena, pinturak, barnizak, disolbatzaileak, halogenoak, fluoreszenteak, pestizidak, kolak, garbiketako produktuak, tonerra, termometroak, erradiografiak, aparatu elektriko txikiak eta telefono mugikorrek dira, besteak beste, olio bilketako ibilgailura eraman daitezkeenak.

Arau horiek hausten dituenak zigorrak jasoko dituela diote garbiketara arduradunek. Arau-hauste arinak 30,05 eta 90,15 euro artekoak dira; larriak 90,16 eta 180,30 euro artekoak eta oso arau-hauste larriak 180,31 eta 300,51 euro bitartekoak. «Sar ezazu hondakin bakoitza dagokion edukiontzian, birzikla dezaten».

## DATUAK ▶

Tolosa txukun mantentzeko jakin beharrekoak dira zehaztutako ezaugarriok:

### GARBIKETEN ORDUTEGIA

**Kale garbiketara.** Egutegia, 07:00etatik 13:00etara eta 13:00etatik 19:00etara. Igande eta jaiegunetan, 08:00etatik 12:00etara.

### Zabor bilketara zerbitzua.

Egutegia, 21:00etatik 06:00etara.

**Landa auzoak.** Astean hirutan (asteartea, osteguna eta larunbata), 07:00etatik 11:00etara.

**Traste zaharren bilketara.** Astean behin (asteazkena), 07:00etatik 13:00etara.

Asteazkena jaieguna izanez gero, hurrengo egunean.

### Industrialdeko zabor bilketara.

Astean bitan (asteartea eta osteguna), 06:00etatik 10:00etara.

### KOPURUAK

**Beira.** 51 edukiontzi.

**Papera.** 57 edukiontzi.

**Ontziak.** 51 edukiontzi.

**Arropa.** 2 edukiontzi.

### HARREMANETARAKO

**Bezeroen arretarako telefonoa.** 607 837 182.

**Traste zaharren bilketarako telefonoa.** 902 119 243.

**Mankomunitateko telefonoa.** 943 676 216.

### GARBIGUNEA

**Zer eraman daiteke.**

Bolumen handiko altzariak, kartoizko eta kartoizkoak ez diren enbalajeak, batarra eta lerro zuriko etxeko tresna elektrikoak, papera, beira, lerro gris eta marroiko etxeko tresnak, ontziak eta obra hondakinak.

## iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: ennio@innoennio.com  
www.innoennio.com

**Asteasu.** 250 m<sup>2</sup>-ko etxe bifamiliarra, eraikuntza berrikoa!  
**Belautza.** Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.  
**Bidania.** Eraikuntza nahiko berriko

etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.

**Ibarra.** Lokal komertziala, 60 m<sup>2</sup>-koa. Salmentan edo alokairuan.

**Ibarra.** Plaza inguruan garajea salgai.

**Ibarra.** Euskal Herria kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Dena kanpoaldera. Oso eguzkitsua. 249.420 euro.

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 130.420 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Montezku auzoan, 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela dituen etxebizitza salgai. Baratza eta txabolarekin. 204.345 euro.

**Tolosa.** San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Berazubi auzoan. 2 logelako

etxebizitza. Bizitzera sartzeko modukoa. 234.395 euro!

**Tolosa.** Amaro auzoan 3 logelako etxebizitza salgai. 225.380 euro.

**Tolosa.** Sputnik. Duplex altua. Berritua.

**Tolosa.** Larramendi. 96 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukalde, bainugela. Trastelekua eta garajea. Dena 330.560 euro.

**Tolosa.** Zezen-plazan. 87 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berrituko igogailuarekin.

**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

**Tolosa.** Geltokialdea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. 2 logela, egongela, sukalde, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behean: garajea, komuna eta txokoa.

**Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta bi

bainugela dituen etxebizitza salgai. Egongela ederra. Ezin hobeto!

**Tolosa.** Laskurain kalean. 80 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, bizitzaren jartzeko modukoa. 297.500 euro.

**Tolosa.** Ibarrik gertu. Duplex-a garaje itxiarekin. Guztiz berritua. 297.500 euro.

**Tolosa.** Erdialdean (oso toki onean). Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela eta bainugela. 371.425 euro.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean, pisu ederra salgai. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera. Altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 120m<sup>2</sup>-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidea-Pedro de Tolosa kale inguruan, 4 logelako etxebizitza ederra saltzen da,

garajearrekin. Etxebizitza toki paregabean dago.

**Tolosa.** Geltokialdea. Alderdi berrian, garaje itxia alokairuan.

**Tolosa.** Trinkete. Garajea alokairuan.

**Tolosa.** Erdialdean. 253 m<sup>2</sup>-ko lokala (bi solairutan banatuta) salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Araba etorbidean, garajea alokairuan.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 40 m<sup>2</sup>-ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Usabal. 2.000 m<sup>2</sup>-ko pabiloi industrialia alokairuan.

**Txarama inguruan.** 100 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza terrazarekin salgai.

Egongela su bajuarekin. Lursaila eta garajearrekin. Oso egoera onean.

**Villabona.** 24.400 m<sup>2</sup>-ko lursaila eta 140 m<sup>2</sup>-ko borda salgai.

## IRURA ▶ EGOBERRIAK

Atzo, ipuin musikatuak,  
eta gaur, erromeria

I. GARCIA

Paxi Hernando Otxeren ipuin musikatuak gozatu ahal izan zuten atzo Irurako ikastolako aretora joan zirenek. Eguberrietako egitarauaren baitan antolatu zuen ekitaldiak Uda-

lak. Gaur ere izango da zer egin Iruran. 17:30ean hasita, Irrintzi taldearekin erromeria antolatu dute. Frontoian izango da dantzaldia, eta egunotan egiten ari den eguraldi euritsuari aurre egiteko arratsalde-pasa ederra izan daiteke.



Atzoko ipuin kontaketa saioaren une bat. I. GARCIA

## ANOETA ▶ POLITIKA

2006rako ordenantza fiskalak  
onartu berri ditu Udalak

«Proiektuak gauzatzeko tasak eta zergak diru sarrera garrantzitsuak» direla dio

## ERREDAKZIOA

Anoetako udalbatzarrak pasatu den ostegunean egindako ezohiko batzarrean 2006ko ordenantza fiskalak onartu ondoren, dagoeneko indarrean sartu dira, «anoetar guztientzat bizi kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren inbertsioak eta proiektuak gauzatzeko», Udalak azaldu duenez. Ordenantza fiskal hauek azaroaren 16an argitaratuak izan ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxean bertan edonork kontsultatu ahal izateko ere eskuragarri daude.

«Gaur egun tasak eta zergak urte honetan garatu behar diren eta udal taldeak garatu nahi dituen proiektu eta eskakarak gauzatzeko diru sarrerak garrantzitsuak suposatzen dute», dio Udalak.

2006rako tasa eta zerga batzuentzat igoerak planteatu dituzte. Eguneratzea edo aktualizazioa dela medio, tasa eta zerga gehienak KPIren (Kontsumorako Prezioen Indizea) igoeira jasango dute, eta «profil ber-

dintsua duten herriein parekatzen dira, etorkizunean konprometitutako ordainketei erantzuna eman ahal izateko». Horrela, zergen inguruan, «udalerraren presio fiskala Anoetan antzeko ezaugarriak (demografia profil berdintsua, ekonomi jarduera...) dituzten herriein alderatuz baxuagoa da», azaldu du Udalak.

«Pasa den urtetik Anoetarako estrategikoak diren beste proiektuetan aurrera egin da», zehaztu du Udalak, eta ondorengoak nabarmendu: babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen hastea, ur depositu berria indarrean egotea, udal liburutegia Euskadiko Udal Liburutegien Sarean integratzea, udaletxean jarri den wi-fi bidezko konexioa eta jubilatuen egoitzako ostalaritza establezimenduaren ustiaketa indarrean izatea. «2006. urte honetan Udalak anoetar guztion bizi kalitatea hobetuko duten proiektu berriak identifikatzeko eta sakontzeko nahia du», dio Udalak.

Tasa eta zergen igoerak «las-

ter errealtate izango den polikiroldegiaren proiektuaren eraikuntza eta bere martxa jartzearen kostuengatik eratorriak dira», azaldu du. «Anoetak azken urteetan antzerkoak diren Gipuzkoako beste herrialdeekin alderatuz aurrezki indize oso baxuak izan ditu. Herri batzuetan aurrezki indizea ehuneko hogeitaz berrogei bitartean kokatzen baldin bazen, Anoetan 2002 urtean maila %7,1era jaisten zen; hortaz, udal fondo baten gabezia somatzen da eta, beraz, ez dago hauetara jotzeko aukerarik».

Udalak gaineratu duenez, «planteatzen diren ekonomi zailtasun guztien gainetik oraingo udal taldeak anoetarentzat estrategikoak diren polikiroldegia bezalako proiektuak eta beste zenbaitzuk aurrera ateratzeko lanak egiten dihardu. Gaur egun, martxan jarri diren lan guztiak udalerririk duen arazo ekonomikoak zuzentzea dute helburu. Horrexegatik, udal taldearen eta anoetar guztion egin beha-

rreko ahalegina handia izango da. Dena dela, udal taldeak etorkizuneko erronkak aurrera ateratzeko aukera dagoela uste du».

## Zenbait datu

Ondasun higiezinari buruzko zergatan zerbitzuen eta industriaren IBIa %0,3625 izango da. Ondasun higiezinena %0,1808 izango da eta IBI errustikoa %0,9. Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga, turismoen kasuan, %1,70ko kuota ezarriko da eta %1,65koa autobusetan, kamioietan, traktoretan eta trakzio mekanikoko ibilgailuetan. Gainontzeko ibilgailuetan beraien tipologiaren arabera %1,65 eta %1,7 arteko koefizientea ezarriko da.

Etzez etxeko laguntza zerbitzuko kuotan, «merkaturako prezioen mailara joaz eta Anoetako ekonomia, errentak eta erretiroak kontuan hartuz», 16,51 euro orduko kuota ezarriko dute. Beste zerga eta tasen kopurua jakiteko udaletxera jo daiteke informazioa eskatzera.

Bestalde, bonifikazioak ere izango dira. Urte batzuetatik hona Anoetak babes ofizialeko etxebizitzetarako % 80ko IBI bonifikazioak aplikatzen ditu, eta %50-90 famili ugariarentzat eta tankera berdineko beste zenbait kasuetarako. «Oro har, Gipuzkoako maila ertainetik gora kokatzen diren bonifikazioak dira hauek», zehaztu du Udalak gaiaren inguruan. Ezintasunak edo minusbaliatasunak dituztenentzat sarbide edo habitabilitate obrak egiten dituztenek ere %50eko kuota izango dute.

## ANOETA ▶

Urteko kuota  
kobratzen hasiko  
da Alkartasuna

Alkartasuna Biltokia datoren astetik aurrera hasiko da urteko kuota kobratzen bere bazkideei. Biltokian bertan egingo da kobraketa, 7 eurokoa, 17:30etik 20:00-etara, asteartean, atezkenetan eta ostegunetan. Bestalde, Espainiako Gabonetako Loterian Alkartasunak zuen zenbakia sarrituatu da (azken zifra zenbaki sarrituaren berdina zen) eta diru horrekin Espainiako El Niño Loteriako 96.102 zenbakia erosi dute. Azkenik, Alkartasuna Biltokiak doluminak eman nahi dizkio berriki hil den Bixente Otegi bazkidearen Gloria Mujika alargunari eta bere sendiari. Hain justu, Eguberrien aurretik Alkartasunako bazkideei merienda eskaini zieten senar-emazteek.

## ASTEASU ▶

Poxpolo, Mokolo  
eta konpainiaren  
emanaldia

Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazo taldeak emanaldia eskainiko dute Asteasuko kiroldegian, datorren larunbatean, Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta. Eskualdeko pailazo hauen ikuskizuna 17:30ean hasiko da. Sarrerak aurretik eskuratu nahi dituztenek dagoeneko salgai dituzte bai kiroldegian bertan eta baita Villabonako Iraola gestorian ere.

## VILLABONA ▶

Behar-Zana  
elkarteko saskiak  
zozketatu dituzte

Behar-Zana elkarte billabonatarren beren saskien zozketa egin berri du. Lehenengo saski txikia 0537 zenbakiaren jabeari egokitu zaio, hau da, Ibarrako Julian Carrera Egiialderi. Bigarren saski txikiaren zenbaki sarritu 5336 izan da, hots, Nekane San Sebastian Arizmendi billabonatarrentzat izan da. Azkenik, saski handia 0286 zenbakiaren jabeari egokitu zaio, hau da, Oartzungo Jaione Sanzberro Albisturri. Behar-Zana elkartekoek eskerak ematen dizkiete bai erosle guztiei bai txartelak saldu dituzten denda eta taberna guztiei.

**KIMETZ**  
Eguberrietako  
eskeintzak  
% 20  
Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

Estetikako  
Zentru Integrala  
**Maite**  
Aukeratu osasuntsu eta eder sentitzeko oparia  
Gorputz edota aurpegirako tratamenduak  
9:00- 20:00  
Errementari kalea • TOLOSA • 943 67 03 38

JABI OTEIZA ▶ PILOTARIA

# «Txapelketa hau irabaztearekin ate gehiago irekiko dira, izena duelako»

22 urteko gazte zarauztarraren pilota ibilbidea bideratzen hasi da, batez ere Aurrera-Saiaz eskolarekin DV torneoan binakakoan garaipena lortu duelako

NEREA URBIZU

Abenduan amaitu zen DVk antolatzen duen pilota txapelketa. Ez zen batere txarra izan Tolosako eta Bidegoiango Aurrera-Saiaz pilota eskolarentzat: izan ere, bertako pilotari Jabi Oteiza izan zen senior 1. mailako binakakoetan garaile berriz ere, Mikel Beloso tolosarra eta Errea nafarra bikote izan zituela. 22-17ko aldeko emaitza lortu zuten azkeneko partidaren, pilotariaren etxean, Zarauzko Aritz-batalde pilotalekuan, hain zuzen ere. Harekin solasean, bere ibilbidearen inguruko balantzea egin du 22 urte dituen atzelariak.

## Zer suposatu du DV torneoaren irabazteak?

Torneo hau pribatua da. Egia esan, ate asko irekitzen ditu, berez publicitate eta izena duelako eta jokatzeko duten izena ere ezagutzera ematen delako. Nik bigarren txapela eskuratu dut aurten, torneo honetan senior mailan. Lehenengo 2003. urtean izan zen, Erroizenearekin. Pilotari Onenari saria ere eman didate aurten. Horregatik, aurrerantzean, ziurrenik, beste torneo batzuetarako deituko gaituzte.

## Zer moduz joan da ligaxka?

Hiru partida jokatu ditugu, eta hirurak irabazi. Lehenengo partidaren Apeztekoa-Arruti izan genituen arerio eta, egia esan, liga honetan hobekien jokatu dudana izan da; presio handia genuen, eta nerbioak ere areagoak ziren. Apeztekoa gaztea da, eta oso ondo jokatzen du. Gainera, ustez, pilota enpresaren batekin zer edo zer hitz egin omen du. Hurrengoan Beitia-Bassonart bikotea izan



N. URBIZU

## TORNEOA

«Torneo honek atea zabaltzen ditu, izena duelako eta jokalariei izenak ere ezagutzera ematen direlako»

zen eta, azkenik, Olazabal aresoarra eta Jauregi izan genituen aurrez aurre. Azken partidan honetan 17 tanto egin zituzten kontrakoek. Ordubete pasatxo aritu ginen jokatzen. Olazabalek ez zuen dakien bezala jokatu, ez zuen dena era-

## EMAITZAK

«Orokorrean, gustura jokatu dut. Maila polita zegoen. Emaitzak merezitakoak izan direla iruditzen zait»

kutsi. Dena dela, partida borrokatua izan zen. Orokorrean, gustura jokatu dut, eta emaitzak ere merezitakoak izan direla iruditzen zait. Neure burua nahiko ondo ikusi dut, gainera; duela ez asko pilotan aritzeagatik egindako lesioa izan

## PILOTARIRIK ONENA

«Pilotari profesionalen artean, Patxi Ruiz dut gustukoena. Aimar Olaizola konpletoena da, dena dela»

nuen, eta uste baino hobeto aritu naiz.

## Beloso Aurrera-Saiaz eskolakoak dugu; Errea bikotekide lehendik ezagutzen al zenuen?

Ez, ez nuen ezagutzen. DV torneo pribatua izatearekin

haiek egituratzen dituzte bikoteak, zuk ezin duzu nahi izanda ere bertan parte hartu. Guztira, 12 bat bikote aritu gara. Hasi-eran, Mikel Beloso izan nuen bikote, eta bi txapelketak aldi berean zirenez (DV torneo pribatua eta Gipuzkoako Kluben Artekoa), ezin izan genuen elkarrekin azkeneko partida jokatu. Horregatik, Eugiko Migel Angel Errea aurrelariarekin egin nuen finala, eta harekin jokatu dudana lehen aldian izan da.

## Nola ikusi duzu Olazabal aresoarra torneoaren?

Oso ondo. Konpletoa da: sakean, erasoan, defentsan... Arlo guztiak ondo kontrolatzen ditu. Gaztea da, gainera, eta aurrelari fina izango da martxa honetan. Ea Aspe enpresarekin zortea duen.

## Zein da zuk jokatzeko garaian hobekien kontrolatzen duzuna, eta zer aldatuko zenuke zure jokoa?

Galdera zaila... ez dakit. Agian, eskuineko eskua ona dudala, eta segurtasuna hartzen dudala kantxan. Konstatea naizela ere uste dut. Txarrena, edo hobetu beharrekoa... gauza asko daude. Besteen artean, sakeak, tantoak ondo bukatzea, eskuz banakako partidak hobetzea... Entrenamenduekin eta jokatuz lortzen da hori: afizionatu urteak ondo datoz horretarako.

## Zein da profesionalen artean gustukoena duzun jokalaria?

Patxi Ruiz gustukoena dut. Ruben Beloki ere gustatzen zait, Aimar Olaizola, Juan Martinez de Irujo... Askok daude. Osatue-na, zalantzarik gabe, Olaizola da, baina gustukoena Patxi Ruiz da.

## Eta hemendik aurrera, zer?

Mikel Belosorekin Euskadiko Kluben Arteko Txapelketa jokatzea da (Liga de Honor delakoa), Gipuzkoakoan bigarren egiteagatik. Hilaren 12an, Elgoibarren izango da. Geroxago, Hirza txapelketa hasiko da, eta bertan ere Belosorekin jokatuko dudala uste dut. Aurrera-Saiaz pilota eskolarekin jarraituko dut; bi urte egin ditut jadanik, eta oso gustura nago bertan.

**hitza**

egunkariaren aldeko

**Bertso-jaialdia**

**ORDIZIA**

2006ko urtarrilaren 6an, ostirala  
Majori Kiroldegian - 18:00etan

Sari Jauregi

Sarrerak aurrez salgai (8€):

- Ordizia: Elvaniz
- Beasain: Goierriko Hitzaren egoitza
- Zaldibia: Itati taberna
- Lazkao: Gerricko liburutegia
- Urretxu: Goierriko Hitzaren egoitza

Egun berean (10€)

ERREMONTA ▶

# Buruz burukoa lortuta, binakakoan txapela eskuratzeko bidean da Zeberio

35-29 irabazi zion Urrutiari buruz buruko finalean; berak eta Auzmendik osaturiko bikotea binakako finalean da



Binakako finalean ariko dira Zeberio eta Auzmendi. J. URBE / ARGAZKI PRESS

## IÑIGO TERRADILLOS

Patxi Zeberio elduaindarrak maila ona erakutsiz eta garai-pen boladari eutsiz jarraitzen du; batetik, pasa den ostiralean Eguberrietako pilotaleku motzeko buruz buruko Torneo txapela eskuratu zuen; eta bestetik, larunbatean, berak eta Auzmendik osaturiko bikoteak Binakako Faustino Txapelketako finalerako txartela eskuratu zuen.

Buruz burukoari dagokionez, 35 eta 29ko emaitzarekin hartu zuen mendean Urrutia Zeberio II.ak Iruñeko Labriten jokatu zen partidaren. Urrutia izan zen nagusi partidaren lehen erdian, baina hortik aurre-

ra Saldiasokoak behera egin zuen eta ezin izan zion Zeberio-ri mantendu zuen erritmoari eutsi. Hala, 31 eta 20 jarri zen elduaindarra 13 eta 1eko partziala egin eta gero. Argi ikusten zen ordurako txapeldun nor izango zen. Hala ere, Urrutia saiatu egin zen, eta gerturatu egin zitzaion, baina ez zen nahikoa izan. Azkenean, garai-pena Elduaingoarentzat izan zen 35 eta 29ko emaitzarekin. Estreinaokoz jokatu da aurten Eguberrietako binakakoa —orain arte binaka baino ez zuten jokatu— eta oso harre-ra ona izan du; finaleko partidaren 500 bat lagun izan ziren.

Binakako Txapelketan, berriaz, Zeberio II.ak eta Auzmendik larunbatean jokatu zuten Hernaniko Galarreta pilotalekuan bigarren finalurrekoa *Altuna II.a* eta Urrutiaren aurka, eta 40 eta 31ko emaitzare-

kin gailendu ziren. Ondorioz, txapelketako finalerako txartela eskuratu dute.

Lehenengo finalurrekoan parekatuago ibili baziren —40-39 irabazi zuten— larunbateko partidaren hasieratik nagusitu ziren Zeberio eta Auzmendi. Partidaren bukaera aldean, ordea, Altuna eta Urrutia gerturatu egin ziren eta 25-24 eta 27-26 egitera iritsi ziren. Zeberio izan zen orduan erasoari ekin ziona erritmo bizia jarri. Aurkariek ezin izan zioten eutsi, eta azkenean 40 eta 31ko emaitzarekin erabaki zen partida.

Bikote irabazleak Ezkurak eta Ionek osaturiko bikotea eta Bitoriak eta Lizasok osaturikoaren arteko finalurrekoari itxaron beharko dio, Galarretan hilaren 14an izango den finalean noren aurka jokatu duten jakiteko.

PATXI ZEBERIO ▶ ERREMONTISTA

## «Urte hasiera ezin hobea litzateke txapelketa irabaztea»

Patxi Zeberio denbora gutxian bi txapela eskuratzeko bidean da, Eguberrietako buruz buruko torneokoa eta Binakako Faustino Txapelketakoa, hain zuzen. Lehenengoaren garai-penaren inguruan eta bigarrenaren finalaren inguruan aritu da HITZAREKIN solasean.

**Txapelketa garrantzitsu bat eskuratu berri duzu eta beste bat irabazteaz zaude; nola sentitzen zara?**

Oso pozik nago. Banakako Txapelketan Koteto Ezkurra bezalako arerio gogorak zeudela kontuan hartuta ez nuen espero hain urrun iristea; gainera, banaka aritzeko gehiegi entrenatu gabe nengo. Beraz, txapela eskuratzeko gustura egoteko modukoa da. Bina-



NOELIA LATABURU

kakoan, berriz, urteko txapelketa onena izanik, eta oraindik noren aurka jokatu behar dugun ez badakigu ere, ziur partidak zaila izango dela. Baina, hala ere, txapela eskuratzeko asmoz gogor lehiatuko gara Auzmendi eta biok finalean. Urte hasiera ezin hobea litzateke txapelketa irabaziz gero.

**Nola oroitzen duzu Urrutiaren aurkako finala?**

Oso polita izan zen. Ilusio handiarekin jokatu nuen eta asko disfrutatu nuen; gainera, bertako giroak ere asko lagundu zuen. Sakean egin zidan minik handiena Urrutiak, baina erditik aurrera behera egin zuen eta nik mailari eutsi ahal izan nion.


**Indarrean dagoen tabakoaren legearen ondorioak zuzenean nabarrituko dituzue, zuen onerako seguruenik.**

Egia esan, pilotalekuan dagoen kea ez dugu gehiegi nabaritzen jokatu ari garenean. Legezaren ondorioz jendeak etortzeari uzten badio gure kaltetako izango da. ◀

## iragarki laburrak ▶

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inketa.** Non egiten dituzu Eguberrietako erosketak normalean? Sartu gure webgunera eta eman zure iritzia! Hauek dira orain arte jaso ditugun emaitzak:



## iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Aduna.** Familia bakarreko etxea salgai. Etxesagasti 943 69 68 56.

**Amezketak.** Etxe abiklia salgai.

Eraiki berria. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Andoain.** Eraiki berria den etxebizitza ikusgarria salgai. Hiru logela eta garaje itxiarekin. Oso ederra. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Legorreta.** Egoera onean dagoen baserria salgai. Lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Etxebizitza altua

igogailuarekin salgai. Hiru logela eta trastelekua. Oso eguzkitsua, Etxesagasti 943 69 68 56.

**Segura.** Familia bakarreko baserria salgai. Lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Eskaera handia** dela eta, ebebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazaritzarako eta hirigintzarako lursailak behar dira Tolosaldeko eskualdean. Alokairuan edo salmentan. Itxaron zerrenda dugu. Etxesagasti. 943 69 68 56.

### SALGAI

**Txakurra.** 3 hilabeteko artzai-txakur kumea salgai. Interesatuek deitu 687 00 68 66 telefono zenbakira.

LEITZA ▶

**Euskal presoan aldeko afariko txartelak salgai Torrean**

J. ASTIBIA

Urteari hasiera ilbeltzaren 5eko ohiko euskal presoan aldeko elkartean afariarekin emanen diote Etxerat-ek eta Askatasunak Leitzan; Espainiako eta Frantziako espetxeetan preso dauden euskal herritarrek eta bereziki eskualdeko preso politikoak izanzen dituzte gogoan: Juanjo Zubieta, Xabi Goldaraz, Txus Goikoetxea, Iñigo Elizegi, Igor Astibia eta Eneko Aizpuru.

Erleta eskolako jantokian, 21:30ean dute mahaira biltzeko hitzordua egina. Horretarako txartelak salgai daude Torrean, 25 euroren truke, eta bihar, hilak 4a, baino lehen hartzea komeni da. Otordua urdaiazpikoa, zopa, axuria saltsan eta sorbetea, kafea eta kopaz osatutakoa izanen omen da.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))**

**Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720

- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595

- ▶ **Orea.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800

- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637

- ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536

- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
- ▶ Donostiako autobusa: 361740

- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015

- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

- ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

JAIONE ASTIBIA

Pasa berri den asteburua berezia izan da, gauden urtabearen egonda, hilabeteko azken ostirala eta urteko azken eguna ere hortxe izaki, Etxerat elkarteak herriz herri manifestazio eta elkarretaratze deialdiak eginak baitzituen gure bi eskualdeetan ere, Euskal Herri osoan bezala.

Ekitaldi gehienetan *Estatus politikoa orain!, euskal presoak Euskal Herrira!* leloak izan zituzten buru, herri bakoitzeko presoak gogoan izan zituztela, nahiz ostiral iluntzean nahiz larunbatean egindako elkarretaratzeetan. Hala, esate baterako, Anoetan 36 lagun elkartu ziren, Ikaztegiatan 17, Tolosan 70, Adunan 11, adierazi dutenez; eta modu berean egin zuten Alegian, Asteasu, Villabona eta Zizurkil en ere. Hauetan guztietan elkarretaratzeak lasai burutu zituzten.

Baina ez zen Ibarroko eta Lizartzako kasua izan, aditza eman zuten; izan ere, bi herri horietan elkarretaratzeak hasi baino lehenago Guardia Zibila agertu zen: Lizartzan, 43 lagun elkartu zirela, herri sarreran kontrolak jarri zituen Guardi Zibilak, eta gero herrian sartu eta lagun mordoska identifikatuaz zituen; Ibarroan, bestalde, 110 bat lagun bildu ziren elkarretaratzean, baina hasi aurretik hemen ere «Guardia Zibileko 3 patrol azaldu ziren eta bertan geunden dozena bat laguni karnetak eskatu zizkiguten», jakinarazi zuten atzo bertan. 20 minutu inguru eduki omen zituzten zain. Horrela zeuden bitartean, «megafoniatik Euskal Herriko 700 preso politikoen izenak», esan zituzten herri guztian entzuteko moduan «20 minutu luzeko zerranda», nabarmendu zuten. Behin karnetak itzuli zizkietenean, «eguraldiari buruz eta bilduko ginen jendeari buruz txantxak eginen alde egin zuten», argitu zuten, eta elkarretaratzearen ondoren iragarritako giza katea ere egin zuten herriko plazarainokoa osatuz. «Duela 20 egunez geroztik baimenduta zegoen deialdia; baina, hala ere, etorri eta identifikatzen aritu dira», salatu zuten.

Biharamonean ere beste hainbeste ekitaldi burutu zituzten Alegian, Altzan eta Amezetan, eta manifestazio bereziak Leitzan eta Zizurkil. Lehendabizikoa, 150 bat lagunek parte hartu zuten eta hemen ere ibilbide osoa manifestazioaren aldean oinezko guardia zibilak zituztela eta atzetik ibilgailu berezia eta hainbat patrol zituztela egin zuten. Zizurkilekoan, berriz, Aiztondoko Udalek, «Asteasu-

**Urte Zaharretan ere hainbat manifestazio eta elkarretaratze**

Bi eskualdeetan euskal preso politikoen estatus politikoa aldarrikatu eta sakabanaketa bukatzeko eskaerak nagusi



Urteko azken eguneko manifestazioan 150 bat lagun bildu ziren Leitzan. JAIONE ASTIBIA



Zizurkil eta Villabona artean, Aiztondoko Udalek deitutako manifestazioa ere jendetsua izan zen. HITZA



Eta azken ostiraleroko elkarretaratzeak ere egin zituzten eskualdean, Adunan kasu. HITZA

koak izan ezik», azaldu zuten ere, deitutako manifestazioa egin zuten, «Villabonakoak, Zizurkilgoak, Adunakoak, Larraulgoak eta Alkizakoak, eta baillara osotik etorritako jen-

dea», bildu zen; manifestazioaren zuten, «400 lagun inguru». Villabonako plazan bukatu zuten, eta baillarako bost udaletan onartutako mozioa irakurri zuten bertan.

Besteak beste, bereziki aitatu zuten Iñigo Guridi herriko presoaren egoera, «bakartuta, Curtisen, 4 urte daramatza isolamendu ziega batean», gogora ekarri.



## AGENDA ▶

### ANTZERKIA

**Irura.** Irurako haur eta gazteboek eskainitako antzerki irakurria. Bihar, 17:30ean, Kulturunean.

### DEIALDIAK

**Irura.** Erromeria haur eta gazteentzat Irrintzi taldearekin. 17:30ean, frontoian.  
**Tolosa.** Herritarren parte-hartze jardunaldiak hilaren 13an eta 14an, arau subsidiarioez. Parte hartzeko deitu 943 69 74 50 telefono zenbakira.  
**Tolosa.** Tolosaldeko Arraun Klubaren bilera. Bihar, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Gaiak: Gipuzkoako ligaxka, Eguberrietako estropada, urtegi puzgarria eta Zerkausia.  
**Tolosa.** Laskorain Ikastolak urteroko Merkatu Txikia antolatuta du Kultur Etxean, Sahararen eta Boliviaren alde. Saharara bidaltzeko elikagaiak ere jasoko dituzte bertan. Hilaren 5a arte, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.  
**Tolosa.** Txinparta elkaratek urteroko Errege kanpaina du martxan, lurreamendin, Belateko zentroan eta San Cosmen banatzeko. Opariak edo dirua Errementari 32ra eraman daitezke, 19:30etik 22:30era.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Juani Alkortaren margolanak. Hilaren 9ra arte, Jubilatuen tabernan.  
**Tolosa.** Manuel Lasarte bertsolari leizarrari buruzko erakusketa. Hilaren 14ra arte, Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Alejandro Tapiaren pinturak. Hilaren 28ra arte, Aranburu Jauregian.

### ZINEMA

**Asteasu.** *Robots.* 16:00etan, udaletxeko zinema gelan.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
**Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

# Anoeta eta Tolosa

## I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Oierrek, Irenek, Anderrek eta Pablok ere ekarri digute beren herriari buruz egindako marrazkia



### ANOETA ▶

**Oier Saldias Mujika (4 urte, Anoeta).**

Oier Saldias Mujika 4 urteko gure lagun anoetarrek bere herriari buruzko marrazki hau ekarri digu HITZARA.



### TOLOSA ▶

**Ander Zaragueta (10 urte, Tolosa).**

Bere herriko Aranburu Jauregia marraztu du Ander Zaragueta tolosarrak. «Ondo kokatuta dago eta ondo margotuta», dio.



### TOLOSA ▶

**Irene Arin Subijana (10 urte, Tolosa).**

«Nire herria oso polita geratu da egindako konponketekin. Behar diren eskolak ditugu. Denetik ikasten dugu: bertsoak, hizkuntzak...».



### TOLOSA ▶

**Pablo Martin Urkia (10 urte, Tolosa).**

«Tolosako toki hau oso ederra da. Horregatik, herri osoa horrelakoa izatea nahiko nuke», azaldu digu Pablok.

## AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
**Nagore Ausin Insausti (Tolosa).**  
Abenduaren 31n 4 urte bete zituen. Muxu handi bat ebekoen partetik.

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri:

**HITZAren egoitzara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!**